

2000KO EKAINAREN 1EAN, GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udalerria
ARETOA: Batzar Aretoa
EGUNA: Bata
HILABETEA: Ekaina
URTEA: Bi mila
HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia
BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa
DEIALDIA: Lehena
OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hiru (4)
MAHAIBURUA: Jon Jauregi Bereziartua
BILDUAK: Josi Insausti Mujika
Andoni Antxia Etxebarria
Arantxa Aseginolaza Azkargorta
IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1- AURREKO AKTA

2000ko apirilaren 18ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako aldaketarik aurkeztu ez delako.

2- FAKTURAK. 35.581.851pta.ko zenbatekoa duen faktura-sorta aztertu da eta aho batez ondorengo erabaki da:

Lehenik.- Aipatutako sortan sartutako faktura bakoitzaren eta guztien gastua onestea.

Bigarren.- Faktura horiei dagozkien hartzekodunei ordaintzeko agindua ematea.

3- ZIURTAGIRIAK

10.000.000 pezeta baino gutxiagoa delako, obra-ziurtagiri honen berri eman da:

San Andresko ermitan egin diren obrei buruzko likidazioa: 3.272.686 pta.

Aho batez, berriz, ondorengo onartu da: 10.778.030 pezetako kolektore orokorrari dagozkion obrei buruzko likidazioa.

4- BAIMENA

Hirigintza batzordeak aldeko txostena eman ondoren, aho batez erabaki da Zaldizurreta kaleko 9, 11, 13, 15, 17 eta 19 zenbakiko eraikinei buruzko lehen erabilerako baimena ematea.

5- PAKEA

Ezagutzera eman da PAKEA, lan istripu eta gaixotasun profesionaletarako gizarte segurantzaren mutuak erabat doako den zerbitzuaren eskaintza, hau da, PAKEA, arduratuko litzateke Beasaingo Udala enpresaren bajen jarraipena egiteaz behar baino gehiago luza ez daitezen eta Osakidetzan itxaronzerrendak gertatuz gero, tratamendu edo ebakuntza kirurgikoa PAKEAn egin ahal izango litzateke. Baldin eta Pakearen baliabideak horretarako aukera eta pazienteak baimena ematen badu.

Bozketa egin da eta gobernazio batzordeko txostena aldekoa denez, aho batez onartu da proposamena.

6- ESKAERA

Ezagutzera eman da 2000ko martxoaren 31ko Agindua, Kultura sailburuarena, liburutegien azpiegiturak sortzeko edo berritzeko Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta mankomunitateei dirulaguntzak emateko modua arautu eta horretarako deia giten duena eta aho batez erabaki da, Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordeari dirulaguntza eskatzea Beasaingo udal liburutegian azpiegiturak berritzeko.

7- EURO EGUNA

Ikusirik “Jolas” taldeak aurkeztutako proposamena Beasainen “Euro eguna” ospatzeko, aho batez erabaki da baiezkoa ematea eta ospakizuna udazken kultural barruan txertatzea. Finkatzen den eguna iritsi baino lehen, aipatu taldeak dendariekin eta ikastetxeekin hainbat iharduera burutzen ditu, hau da, joku didaktikoak, marrazkiak, hitzaldiak eta abar. Udazken kulturala azaroaren lehenengo hamabostaldian izango denez, ikasturtea hasten denetik ia bi hilabeteko epea izango dute dena prestatzeko. “Euro egunean” euroekin transakzionatzeko aukera izango da, baina ez benetako euroekin. Iniziatiba honen kostua 1.000.000 pezetakoa da.

8- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bileran bederatzia eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.